

Kontzertuak, erakusketa, zinema eta ikus-entzunezkoak nagusi urria eta abendua bitarteko egitarauan

## Sanmielak errespetuzko giroan igarotzeko deia egin dute

Aurreko asteburuko lehen hitzorduekin, jaiak iristeko gogoz dira urnietar asko.

**O**stegun arratsaldean San Juan plazan direnei begira, jaien hasierako suziria zerurantz joango da. Pausoka elkarteko kideek emango diote aurten jaiei hasiera ofiziala. Hortik aurrera, dozenaka hitzordu iragarri dituzte datozen bi aste-buruetan. Giroa berotuz joan da, beste urteetan bezalaxe, jaien atariko sortarekin. Horietako gehienak aurreko larunbatean burutu ziren: Gazteen herri kirol desafiua, danborrada edota Buruntzantzan batukada taldearen perkusio soinuek Sanmielen giroa ekarri zuten Urnietako kaleetara. Jaiak bete-betean asteburu honetan sartuko dira, bereziki, jaien ikur nagusietakoa elizaren kanpai dorretik jaisten denean. Miela da ikur hori, zein bestela? 2010ean Poxta Zahar gazte taldearen ekimena izan zen Mielen irudia sortzea, eta 2011ko jaietatik hona festazale guztien ikur bilakatu dela esan daiteke.

Aurtengoan Euskal Herri osoko jaietan errespetuzko giroa sustatzeko eta emakumeenganako eraso sexistak saihesteko sentsibilizazio kanpaina bereziak egiten ari dira. Zentzu horretan, urnietar gazte taldeari aitzindaritza papera aitortu behar zaio. Giro narratsa sortzen dutenei aurre egite aldera, Potxa Zahar taldekoek Miela aurkeztu zuten 2010ean. Hemerrotekara joz, horrela aurkeztu zuen bere burua: "Jai herrikoi, parekide eta parte hartzaile batzuen alde, jantzi koloretsuak soinean, irribarretsu eta jaiak alai pasatzeko gogoarekin egin zuen aurkezpena Miela".

Urnietako Udalak aurten, gainerako udalerrietan egiten ari diren bezala, balore horiek indartu nahi ditu emakumeenganako jokabide traketsak saiheste aldera.



Udal ordezkariak eta herri eragileak aurtengo jaien aurkezpen ekitaldian.

Urnietako jaien indarraldian ezinbestekoa izaten ari da herri eragileen parte hartzea. Egape dantza taldea, Poxta Zahar, Denda Berri edota Iñistorra askoren artean aipa daitezkeen herriko taldeak dira. Denen ekimenarekin egitarau oparoa osatzen ari dira azken urteetan.

Ospakizunak San Juan plazan eta inguruan izango badira ere, jaiak herrigune osoa hartuko du. Eta alde horretatik auto gidariak edota autobusaren erabiltzaileek adi ibili beharko dute. Datozen bi larunbat arratsaldetan, adibidez, Idiazabal kalea itxita izango da. Ibilgailurik ez da bertatik

*Gazteen herri kirol desafiua, danborrada edota Buruntzantzan batukada taldearen perkusio soinuek Sanmielen giroa ekarri zuten Urnietara*

pasako eta bus geltoki bakarra Zabaletakoa izango da. Auto gidariak autobidea erabili beharko dute herrira sartu edota herritik irteteko. Jaien aurkezpen ekitaldian Mikel Pagola alkateak pazientzia eskatu zien jaietan errepide mozketak edota auto ilarak pairatuko dituzten gidariei. Jaiak behar bezala igarotzeko sortzen diren ze-

harkakako eragozpenak dira horiek.

Herritarren gehingoak, ordea, herrian bertan egotearen aldeko erabakia hartuko du. Oinez, eta ibilgailua hartu gabe, ospakizun guztiak esku-eskura egongo dira.

Andoaindik edota inguruko herrietatik geturatuko diren intereseak izan daitezke asteburu honetarako iragarritako kontzertuak. Txosnagunean ostiralean zuzenean arituko dira Kaotiko eta Glaukoma taldeak. Larunbatean, berriz, Los zopilotes txirriaos eta Bad Sound System. Ostegunetik aurrera, jai nagusituko da Urnietan.

[GEHIGARRI BEREZIA]



Aurreko larunbat arratsaldean desafio berria jokatu zuten Idiazabal kalean.



## Euskara ikasteko eskaintza zabala

Udalak eta Andoaingo AEK euskaltegiak ikasturte berri-rako egitasmoak aurkeztu dituzte.

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]



## Xanti Bakero futbolaren langilea

Sortzez nafarra, aspaldian Andoainen bizi da. Jon Gaztañaga Realean ari da jokatzeko. Xantik 80ko hamarkadan jokatu zuen lehen taldean.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

## Leitzaran martxa



[KIROLAK, 6. ORRIALDEA]



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

## Eskoziak erabaki du

**E**skoziari begira egon gara azken hilabete hauetan eta azkenean erabaki da. Eskoziako populazioaren gehien-goak, hala nahita, Erresuma Batuan jarraitzea erabaki du. Horrek esan nahi du, nahiz eta alde gutxigatik izan, independentziari ezetz esan diotela. Parte hartzea handia izan da. Herri-tarrak pozez eta normaltasun osoan joan dira bozka ematera eta errespetu berekin jaso dute erabakia. Horrelakoetan, ohituta gaude hemen, espainiar estatuan, beldurrak, zatiketak edota batasun falsuak aieratzen. Baina Eskozian dena normaltasun osoz joan da. Asko hitz egin da kultura demokratikoaz; eta nik uste dut kultura horren ondorioa izan dela normaltasuna, festa giroa etab. Eta esan bezala, ez da inongo zatiketarik sortu. Aniztasuna beti da aberasgarria eta desberdinekin bizitzen ikasi behar dugu elkar errespetuan. Eta kontziente izan denok ez dugula berdin pentsatzen, baina elkarrekin bizi gaitzkeela. Hori da gizarte baten heldutasunaren froga nagusia.

Eskoziak eta Erresuma Batuak, bestalde, prozedura adostu zuten. Cameron jaunak ez du erreferenduma galarazi; alderantziz, bultzada eman dio eskoziarrek bozka eman zezaten eta ez da ezertxo ere pasa, munduak eta gizarteak lehengo bidetik darrai. Zentzu batean, ordea, ez. Eskoziak erreferendum honekin ibilbidea aldatu du. Nahiz eta ezezkoak irabazi, hain alde laburra-ekin, egoera aldatuko da eta hobera, noski. Erreferendumaren aurretik Cameron berak esana zuen Eskoziako autogobernua zabalagoa, hobeagoa izanen zela. Eta orain dagokien lana, Cameron lehen ministroari nahiz Eskoziako agintariei herritarren borondate hori bide-ratzea eta, nolabait, ezetza zein baie-tza eman dutenen nahiei erantzutea. Lan hori ez da erraza izango, baina elkar-lanean eta errespetuan egin daitekeen zerbait da. Eta ziur egingo dutela. Esko-zian barruan ez ezik Europa Batasune-an erreferendumari aurrez aurre begi-ratu beharko zaio, eta, goizago ala beranduago tratatuaren berrikuntza planteatu beharko dute. Egoera bere-tsun daudelako hainbat nazio. Lege-ek eta tratatuek herritarren beharren eta nahien alde egon behar dute, eta ez alderantziz.

### ESKOZIATIK KATALUNIARA

Norbaitek arazoren bat edo asmoren bat duenean antzeko zerbait duen ondoko-ari begiratzen dio, konplizitate lortu nahian. Eta Kataluniak ere, bizi duen egoera zailan, Eskoziari keinu asko egin dizkio baina, jakina, bi egoera ez dira beti berdinak eta egoera hori kudea-tzen ari direnak ere ez. Rajoyri aurpe-giratu diote ez duela konstulta adostu nahi Katalunian. Konstulta diot eta, gai-

*Eskoziak eta Erresuma Batuak prozedura adostu zuten. Cameron jaunak ez du erreferenduma galarazi; alderantziz, bultzada eman dio eskoziarrek bozka eman zezaten eta ez da ezertxo ere pasa*

nera, ez erabakiorra. Beraz, ez du Esko-ziako erreferendumaren maila. Baina, halere, Espainiak temati ezezkoari eutsi nahi izan dio. Eskoziaren eta Katalunia-ren arteko aldeak handiak dira, nahiz eta nire irudiko erabakitze eskubidea biek eta beste askok duten.

Aiurrin idatzi ditut erabakitze esku-bidearen inguruko pare bat zutabe. Eta askotan esan dut, erabakitze esku-bidea eskubide demokratikoa izanik ez dela independentziarekin nahastu behar; eta nire irudiko, Katalunian eta Espai-niako Estatuan hasiera-hasieratik, bi kon-tzeptuak nahasi egin dira eta horrek zail-du egin du gauzak normaltasunez plan-teatzea. Itxura osoa du Katalunian en-frentamendua dagoela kontsulta horren inguruan. Egokiena izanen zen alderdi guztiek kontsultaren galderak adostea eta Kataluniak galdera horie-tako bat aukeratzea: independentzia, federalismoa, autogobernua etab.

Zeren eta ni kataluniarra izango banintz, gustatuko litzaidake, esatera-ko, subiranotasunaren barnean zer nahiko nukeen erabaki. Norbaitek eman dezake subiranotasunaren aldeko bai-na independentziarik gabeko beste egi-tura baten aldeko bozka.

Balizko kontsulta batean galdera zera litzateke: Independentzia bai, indepen-dentzia ez. Bestalde egia da Rajoy ez dela Cameron, eta Konstituzionalak parlamentuan gehiengoz bozka duten kontsulta legea atzera botako duela. Gar-bi utzi nahi dut erabakitze eskubide-aren aldekoa naizela, baina Katalunia-ko alderdi politikoez ez dira adostasun batera iristeko gai izan. Eta ez dut bide garbirik ikusten. Nire irudiko, Katalu-niako ikusita, Euskal Herriak ahalegi-nak egin behar ditu lehenik alderdien arteko adostasuna lortzen. Eta ezin bada, herriari kontsulta egin diezaiote-la galderak garbi eta aukera guztiak mahai gainean jarri.

Euskal Herria beste baterako utziko dut.

### MIELAK

Ondo pasa festak. Tradizioak errespetatu baina kontuan izan tradizioa ez dela zerbait trinkoa, egokituz joan behar dugula. Herria anitza da eta bizikidetz-a beharrezkoa da. Eta tradizioak gaur urnie-tar guztien aldekoak izan behar duela eta horretara egokitu behar duela.

Ondo pasa!!!

Irailaren 11tik 21era Munduko txapelketa Mexikon

# Euskal pilotaren mundiala

**J**oan zen irailaren hamai-katik hogeita batera ospatu zen 2014. urte-ko Munduko pilota txapelketa Mexikoko Zinacantepec hirian. Azken egunak albiste pozgarria ekarri zuen berarekin, Julen Loitegi urnietar gazteak, eskuz bakarkako trinkete modalitatean brontzeko domina lortu baitzuen.

Aparteko giroarekin eman zitzaion amaiera igande gaueko hamaikak aldera XVII. Munduko Euskal Pilota txapelketari. Jende asko erakarri du pilotalekuetara txapelketa honek. Antolakuntza ez da izan oso ona, atzerapenak, zenbait unetan frontoietara sartzeko kaosa, informazio falta, eta abar. Halare, konpetizioa bera izan da protagonista, eta pilotariak dena ematera joan zirenez partida bikainak utzi ditu txapelketak.

### JULEN LOITEGI

Julen Loitegi urnietarrak igande arratsaldean brontzeko domina jasotzeko aukera izan zuen, eskuz banakako trinkete modalitatean. Txapelketa gogorra izan da berarentzat. Lehia bizia eta aurkari zailduak. Halere, egindako txapelketa bikaina izan da, eta bere adina kontuan izanik, hementik lau urtetara jokatu den hurrengo munduko txapelketarako faborito nagusienetakoa izango da urrezko domina lortzeko. Brontzeko domina paparrean zuela adierazi zuen bere poza, "bai, pozik nago, baina, sentsazio bereziak izan ditut, partidak ondo hasten nituen, eta batez ere, kubatarren aurkako partidak, pixkanaka behera etortzen nintzen, ez dakit zer gertatzen zitzaidan". Zalantzarik gabe, banakako partidak fisikoki oso exigenteak dira, eta horri erantsi behar zaio, aurkarien artean "zakur zahar" ugari zegoela, adibidez, munduko txapeldun geratu den 38 urteko Heriberto Lopez (Loquillo) mexikarra, edo, zilarrezko domina lortu zuen Jean Marc Lemure frantziarra.

### EUSKAL GIROA

Munduko txapelketa honetan nabarmena izan da euskal giroa. Hainbat herriadetako pilotariak euskal diasporaren parte dira, edo harreman zuzena dute, eta aprobetxatu dute elkarren arteko harremana sustatzeko. Igandean, sari banaketa ekitaldia amaitu ondoren, elkarrekin argazki ugari



Asteartean itzuli zen Mexikotik Julen Loitegi urnietarra.

egin zuten, ikurriña elkartzen zituen sinboloa izan zelarik.

### IKUSLE UGARI

Txapelketa nahiko hotz hasi bazen ere, aurrera egin ahala, giroa berotzen joan zen. Lehehengo egunetako frontoi erdi beteak, azken egunetan erabat beteta ikus zitezkeen. Azken bi egunetan ilara luzeak egin ziren kiroldegiko kanpoaldean, eta jende ugari etxerako bidea hartu beharra izan zuen sartzeko aukerarik gabe geratu ondoren. Mexiko ordezkatzan zuten pilotarien paper ona izan liteke jende pilaketa horren arrazoari nagusietako bat. Pilotari mexikarrak ez zuten animo faltarik izan.

### MEXIKO TXAPELDUN

Pasa zen igande gauean txapelketari amaiera eman zioten fronteniseko bi partidak (emakumeen finala eta ondoren, gizonen finala) jokatu ziren, Espainiako eta Mexikoko selezioen artean. Bertan, jarduerari zegozkion urrezko dominez gain, jokoan zegoen zein herrialde suertatuko zen edizio honetako txapeldun. Eta orratz bat ere kabitzen ez zen pilotalekuko giro beroaren babesak bultzatuta, etxeokok irabazi zituzten bi partidak.

Ondorioz, eta 2006. urtean gertatu zen moduan, Mexiko izan da 2014ko Munduko pilota txapelketan domina gehien lortu duen herrialdea, ondoren sailkatu dira, Espainia, Frantzia, Argentina, Kuba eta Uruguay, hurrenez hurren.

Txapelketa osoa kontuan hartuta, pilotari onena moduan izendatu zuten Rodri-

*Julen Loitegi urnietarrak igande arratsaldean brontzeko domina jasotzeko aukera izan zuen, eskuz banakako trinkete modalitatean*

guez mexikarra.

Txapelketaren bukaera moduan, igande gauean pilotalekuen alboan kokatutako karpabatean disko festa izan zen goizaldeko ordu txikiak arte. Eta bertako mugimendu trakettsak ikusi ondoren, hanka sartzeko beldur handirik gabe, esan liteke, dantzari baino kirolari hobeak direla.

### HURRENGOA BARTZELONAN

Irailaren 16an egin zen Toluca Euskal Pilotaren Herriarteko Federazioaren asanblada orokorra. Bertan, lehendakari berria aukeratu zuten, Mexikon bizi den iparraldeko euskal herritarra, Xabier Cazaubon, hain zuzen ere.

Eta zuzendaritza berri honek erabaki zuen, aho batez, 2018. urtean jokatu den munduko txapelketa Bartzelonan egitea. Gainera, XVIII. munduko txapelketa izango denak, aldaketa garrantzitsu bat ekarriko du berekin, lehendakari berriak adierazita-koaren arabera, bertan, pilotari profesionalak ere parte hartuko baitute lehen aldiz. Honek esan nahiko luke, adibidez, Irujo eta Olaizola Bartzelonako munduko txapelketan izan litezkeela. Zinacantepec-en bildutako pilotarien artean erabaki horren aurkako giro nabarmena somatzen zen.

San Juan plazaren etorkizuna herritarrek erabakiko dute

## San Juan plazaren etorkizuna aztergai

**A**steazken honetan, Sanmielen atarian, San Juan plazaren etorkizuna hizpide izan zen Lekaion egin zuten egitasmoen aurkezpenean. Izan ere, Udalak San Juan plaza oinezko bihurtzeko ideien lehiaketa martxan jarri zuen eta prozesu horretan hiru proiektu ezberdin kontuan hartu dira. Eta hemendik aurrera zer? Bada, auzotarren esku geratuko da erabakia. Udalak iragarri duenez, plazaren etorkizuna urnietar guztien artean adosteko parte hartze prozesua abian jarri du. Asteazkenean egitasmo bakoitzaren egileek egitasmoak aurkeztu zituzten. Proposamen bakoitzaren aurrean sor zitezkeen zalantzak egileei zuzenean galdetzeko aukera izan zen. Udalak garrantzia eman zion egitasmoaren aurkezpenari, izan ere, "herritarrek izango dira hemendik gutxira euren bozaren bitartez San Juan plaza nolakoa izango den erabakiko dutenak".



### 3 PROIEKTU, 3 PROPOSAMEN

#### 1. Albert Fuentes

"Gaur egungo plazaren berrantolaketa, bere betiko izaera mantenduz, baina erabilera eta ekintza berriei aurre egiteko gai den hiri-espazioa sortuz. Zuhaitzak dituzten guneak lasai egoteko, gazte eta txikiak gune dinamikoekin konbinatuz".

#### 2. Olatz Alonso

"Herriko plaza, guztion plaza. Gune zabal eta hesirik gabekoa proposatzen da, jarduera anitzak egiteko, non udaletxe-

ak, ermitak eta elizak protagonismoa hartzen duten, batera artikulatuz. Hori guztia gune berrien sorrerarekin konbinatuz, herritarren gozamenerako eta adin guztietako pertsonen arteko elkarbizitza sustatzeko pentsatuak".

#### 3. Jon Ugalde

"Herriaren bihotza, kontzientzia komunaren islada, oinezkoentzat berreskuratzen da. Topaguneak hurbilduz, erabilera egokitzuz eta mugikortasuna eta irisgarritasuna bermatuz. Gune desberdinen izaera lotuz".

Salesiar ikastetxera doazen oinezkoek bide hori hartu behar dute

## Txoritagaineko bidetik

Herrigunea eta salesiar ikastetxea lotzen dituen errepideertzeko lanak hasita, oinezkoentzako bidea hainbat astez itxita egongo da. Urriaren amaiera bitarte errepide hori erabiltzen duten oinezkoek Txoritagaineko bidea erabili beharko dute. Oharrei jaramon egitea komeni da, oinezkoen segurtasuna bermatze aldera. Gaur egungo errepidearen alboan bizikletentzat lau metroko zabalera duen bidegorria eraikiko dute. Oinezkoentzako espaloia, berriz, barrualdetik eraikiko dute, gaur arte zelaia zegoen tokian.



Plazatik San Juan kalera abiatu eta Denda Berriko atarira jaitsi beharrean, ezkerretara jo behar da Txoritagaineko bidea hartzeko.



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

## Gure gauza onak onartu

Gure seme edo alaba maite dugula, horretaz ez da dudarik egiten, baina sentitzen al du maite dugula? Berak senti dezan zer egin behar dezue? Arreta osoa izan berarekin benetan topo egiteko, interes osoa izan berarekin egoteko, ezagutzeko, bere gauzetan arduratzeko. Berarekin topo egitea da bere dohainak ikustea, dituen jokabideak ezagutu eta mirestea. Hurrek berezkoa dute adi-adi egotea orain eta hemen. Guregandik hori espero dute. Interesik gabe egotea urruti egotea da; nire gauzetan sartuta egotea, zer egin dudan eta zer egingo dudan hausnarean egotea, gorputzez hurbil baina barrutik urruti, ez nago kontzentratuta beragan.

Haurrak konturatzen dira noiz entzuten diegun benetan eta noiz ez. Nabaritzen dute osorik atenditzen diegunean, noiz miresten ditugun ere bai. Esateraino: zuk entzuten didazunean sentitzen dut zuretzat inportantea naizela, ajola naitzaizula. Horrela sentitzeko ez da nahikoa denbora asko egotea berarekin, barrutik eta osorik egotea baizik.

Etengabe bere gauzetan korapilatuta harrapatzen gaituean beraregandik urruti

gaude, enbarazu bat naiz. Benetan berarekin egonaz mezu hau pasatzen diogu: zurekin egotea inportantea da niretzat, zure dena benetan ajola zait. Eta haurrak ondorio hau ateratzen du: nirekin denbora horrela galtzeko inportantea izango naiz nire gurasoentzat.

Egia da mila egin behar ditugula eta horrek ez digu laguntzen zentratuta bizitzeko.

Arreta osoa emateko entrenatu egin behar da horretarako. Ez da erraza kontzentratuta egotea. Hasi naiteke orain eta hemen nire gauzetan: sukaldeko lanak, garbiketak..., horretan bakarrik pausatuz. Gero hori bera egin dezakegu gure haurraren gaudenean. Horrela egoten ikastera gure haurraren ohitura bihurtu liteke. Hori eginez sentituko da gure haurra maitatua.

Hau guztia nola egin ikasteko ondo etorriko zaizu irailan antolatuko dugun ikasketa egitea. Aurreko idatzian aipatzen nuen eskolako porrotak zuzentzeko metodo bat sortu dela eta Lasarten bigarren urtea daramatela hori aplikatzen, bai irakasleek baita gurasoek ere. Horren azalpena uztaileko Argiak egiten zuen honela: "Irakasle eta gurasoon esku dago hurrengo ikasturtean ume bakoitza eskolan positibo nabarmen zea. Eta motibazioa gailurrera eramatea, umearen garapena optimoa izan dadin. Europar sortu eta Hego Euskal Herrian ere zabaltzen ari den Golden 5 hezkuntza programak erakusten digu ikuspegia aldatzearekin eta egunerokoan teknika txiki batzuk txertatzearekin emaitza ikusgarriak sumatzen direla berehalakoan".

## Ehiza postuen zozketa

Santa Krutz elkarteak datozen egunetako ehiza postuen zozketen berri eman du:

Irailaren 26an Goibietako ehiza postuen zozketa, hurrengo egunean ehizatzen.

Urriaren 10ean Otsolepoko ehiza postuen zozketaren hasiera, biharamunean ehizatzen. Urriaren 11n Xoxokako ehiza postuen zozketa, egunean bertan ehizatzen.

**kontzertua**  
**Argiaren alde**

Irailak 26

Lasarte-Oria

Manuel Lekuona Kultur Etxea  
22:00

**MIKEL URDANGARIN**  
**ANARI**  
**PIER PAUL BERZAITZ**  
**PETTI**  
**ESTITXU PINATXO**  
**ALBOKA TALDEA**  
**BIDE ERTZEAN**  
**JON BASAGUREN**

Sarrerak: 15 €

Lasarte-Oria: Argian, Jalgin eta Kultur Etxean.

Hernanin: Oinddi eta Txili tabernetan.

Usurbilen: Bordatxo tabernan.

Kutxabank Sarrerak

BABELSIA

Gipuzkoa  
BERRIA

LAGUNTZAILEAK



Inoiz baino dirulaguntza gehiago ematen da euskara ikasteko

## Euskara ikasteko aukerak, esku eskura



Urriaren 4an Bastero plazan, ikasturteari hasiera emateko ospakizuna antolatuko dute eguerdiko 12:00etan hasita.

**E**uskara ikasteko matrikulazio kanpainaren aurkezpenean, Selfie lehiaketa auztezu zuten **Ainara Rodriguez** Andoaingo Udaleko euskara zinegotziak, **Arantza Aguado** euskara teknikariak eta AEKko **Kris Bernal** eta **Jaione Rodriguez** irakasleek.

“Euskara ikasteko aitzakirik ez dago. Inoiz baino dirulaguntza gehiago ematen da, eta egoera ezberdinak kontuan hartzen dira”. Hitz horiekin herritarrak euskara ikastera animatu nahi izan zituen Ainara Rodriguez euskara zinegotziak.

Rodriguezek eta Kris Bernal Andoaingo AEK euskaltegiko irakasleek aurtengo matrikulazio kanpainaren berri eman zuten, joan den ostiralean. Euskararen ikasketan murgildu nahi duenari, Udalak ematen dituen dirulaguntzez gain, AEKk eskaintzen dizkion aukera anitzen inguruko xehetasunak azaldu zituzten.

Rodriguezek esanetan, “hogei mila euro bideratuko dira

aurtengoan. Ondo inbertitutako dirua da eta pixkanaka handitzen doan kopurua da. Orain arte, 81 pertsonak jaso dituzte dirulaguntza horiek”.

Hain zuzen, ikastaro arruntetan eta trinkoetan ordaindutako matrikularen %50ekoa da dirulaguntza; autoikaskuntzako ikastaroetan, berriz, ordaindutako matrikularen %50erainokora irits liteke. Bestalde, %100ekoa izan daiteke ikaslearen familiaren egoerak zenbait baldintza betetzen baditu (diru sarrerak, e.a.).

Andoaingo Udalaren web orrian irakur daitezke, ondo zehaztuta, bete beharreko baldintzak. Aukera ugari ematen dizkio web orri horrek klikatzen duenari; besteak beste, ikasleak zein maila duen ikus dezake bertan dauden froga ezberdinen eskutik.

Kris Bernalek iazko ikasturteko datuak azaldu zituen: 135 ikasleek parte hartu zuten klase presentzialetan. Mintzalaguna programan 12 talde osatu zi-

ren; Guraso Laguna-k bost talde eduki zituen, zer pentsatua ematen duen hogeita bi emakumek osatu izanaren datuarekin. Azkenik, bi guraso talde jarri ziren abian 18 ikasleekin (haurrei begirako euskararen transmisioa bultzatzen duen programa da hori). Arrakastuak suertatu ziren hiru programak iaz, eta horiekin aurrera jarraitzeko asmoa agertu zuten.

Ikasturte hasierako festa ere iragarri zuten prentsaurrekoan. Urriaren 4an izango da, Bastero plazan, eguerdiko 12:00etan hasita. “Antzerkiaren eta musikaren laguntzaz, ondo pasatzeko tartea hartuko dugu”, esan zuen Kris Bernalek.

Azkenik, bigarren ekintza osagarri bat jakinarazi zuten: selfie lehiaketa hain zuzen. Mintzalaguna eta Guraso Laguna programetan parte hartzen dutenei zuzendua dago. Epa-mahaia ikasleek osatuko dute, eta originaltasuna hartuko dute kontuan. Urriaren 31n jarri dute epea, argazkiak helerazteko.

## Ikastaro eskaintza oparoa Zuenan eta Basteron

Ikastaroen eskaintza oparoa da udazken honetan, Andoain. Zuenan emakumeen elkarteak, honako ikastaroak antolatu ditu: pintura, musika, josteko eta arropa konpontzekoa, norbera makillatzekoa, yoga, pilates, tai-chi, aretoko dantzak eta zumba. Matrikulatzeko epea irailaren 22tik 26ra jarri dute. Ikastaroak urriko lehen astean hastekotan. Izena elkartearen egoitzan eman daiteke: Extremadura 2-bis. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak, berriz: 606929697 (Ana).

Andoaingo Udaleko kultura batzordearen eskaintza, bere aldetik, honako ikasta-

roek osatzen dute: pintura eta marrazketa, arte aplikatuak, egur taila, panpinak eta feng shui. Hiru talde aurreikusi dituzte pintura eta marrazketan, Arantza Gabino eta Eduardo Arreseygor irakasleekin. Bi talde arte aplikatuetan (Leire Martin) eta egur tailan (Patxi Monreal), eta azkenik, talde bakarra panpinak egiten (Fanny Alonso) zein feng shuian (Lourdes Galarraga).

Basteroko harreran edo eta udaletxeko Ataria zerbitzuan eman daiteke izena; irailaren 10, 11 eta 12an iazko ikasleek, eta irailaren 15etik 19ra, lehenengo aldiz matrikulatu nahi dutenek.

## Erretzeari uzteko informazio mahaia kalean



Minbiziaren aurkako elkarteko kideek informazioa banatu zuten.

Eskualdeko Minbiziaren aurkako elkarteak (AECC) mahaia jarri zuen joan den astartean, Eskola kalean. Elkarteko kideek tabakoa erretzeak dakarren kalteak azaldu zizkieten interesa azalduz mahaira hurbildu ziren herritarrei. Informazio jakingarria eskura jarri zieten: besteak beste, tabakoarekin lotutako mitoei buruzko liburuxka, eta, menpekotasun maila azaltzen duen Fagers-

trom testa egiteko galdeketa, erretzeari uzteko gida praktikoa, eta, erretzeari uzteak petsona bakoitzari dakartzion onurak osasunaren ikuspegitik.

Mahaian AECC elkarteko kideez gain, Andoaingo ambulatorioko rantxa Mendilurri erizainak jardun zuen informazioa banatzen. Erretzeari uzteko ikastaroak zuzentzen ditu ambulatorioan Mendiluzek.

ANDOAINGO GUDUA 1837

ORAIN LAMINAK SALGAI

IRAILAREN 8TIK  
AURRERA

600mm x 420mm

SALGAI:

ANDOAIN

Stop, Delgado eta Ernaitza liburudendak.  
Leitzaran markoak (Kale Berria) eta  
Aiurri (Arantzibia plaza, 4-5)

Sorta osoa: 25 € (4 lamina)  
Laminak banaka: 8 €

Erne! Aiurriko harpidedunek  
eskaintza berezia dute  
hamaboskariaren bitartez (20 €)  
Ikus 435. zenbakia, irailaren 19an





2014, Sanmielak

# Gora Urnieta!



Urnieta Udalak  
gehigarri hau  
argitaratuz jairik  
zoriontsuenak  
opa dizkizue  
urnietar guztiei



**ERRESPETUA +  
JAI GIROA =  
GUZTIONTZAT  
GOZAMENA**




Urnieta Udalak




# Krisiak ahazteko deia jaien aurkezpenean

**LUZE DOAN KRISIA ZEIN HERRIKO ERAGILEEN BAITAN TARTEKA GERTATZEN DIREN KRISIAK ALDE BATERA UTZI ETA JAIETAN MURGILTZEKO DEIA EGIN ZUTEN AURTENGO SANMIELEN EGITARAUAREN AURKEZPENEA. JAIK ALAI IGAROTZEKO EGUNAK DIRA.**



**David Rosco,**  
**Sustapena**

Ekitaldiaren aurkezpena egin eta Udalak omenduko dituen pertsonak eta eragileak aipatu zituen: Banaiz Bagara, Hiazinto Fernandoren eta Iñistorra.



**Miren Martiarena,**  
**Berdintasuna**

Hastear diren jaietan errespetuzko portara eskatu zien herrikideei, eraso sexistak saihesteko aldera. Protokolo bat lan-tzen ari direla iragarri zuen.



**Isabel Salaberria,**  
**Egape**

Egape dantza taldearen eskutik jaietan hainbat hitzordu burutuko dira. Haien aurkezpena egin eta jaietan parte hartze-ko deialdia luzatu zuen.



**Fran Bravo,**  
**Buruntzantzan**

Perurekin elkartearen bozeramaile lanak egin zituen eta Buruntzantzan taldearekin aurtan bi saio egingo dituztela iragarri zuen, horietako bat dantzariekin.




**Iñaki Muro,**  
**Batzokia**

Batzokiak bi euroren truke pintxo eta munduko ardo bat dastatzeko aukera eskainiko du jaien bigarren asteburuan, Jakutegi plazan jarriko duten postuan.



**Lupe Martiarena,**  
**Denda Berri**

Adinekoek krisi ezberdinak bizi izan dituztela gogora ekarri eta jai ederrak igarotzeko desioa agertu zuen. Antzerkia edota bazkaria aurkeztu zituen.



**Mikel Pagola,**  
**Alkatea**

Jaietan trafiko aldaketa nabarmenak izango direla eta, pazientzia eta errespetua eskatu zuen. Bereziki Udal langileekin eta bolondres aritzen diren urrietarrek.

## Trafiko aldaketan aurrean, "pazientzia"

**"UDAL LANGILEEKIKO ETA JAIK ONDO IRTETE ALDERA LANEAN JARDUNGO DUTEN BOLONDRESEKIKO ERRESPETUA ERAKUSTEA FUNTSEZKOA DA", ADIERAZI ZUEN URNIETAKO ALKATEAK HERRIKO JAIEN AURKEZPEN EKITALDIAN.**

Mikel Pagola alkatea aurtengo Sanmie- len aurkezpen ekitaldian herriko jaietan handik hona ibiliko diren auto gidariei bereziki pazientzia eskatu zien, "Trafiko aldaketek eragozpenak sortu ohi dituzte eta horien aurrean pazientzia eskatu nahi diet herritarrei. Lasai hartu autoan zabalitatenok, eta herriguneko bidea itxita badago, autobidea erabili edota auto gidarientzat eskuragarri jarriko ditugun bide alternatiboak". Pazientzia eta errespetua, horixe eskatu zuen; "udal langileekiko eta jaiak ondo irtete aldera lanean jardungo duten bolondresekiko errespetua erakustea funtsezkoa da".

### TRAFIKO ALDAKETAK HERRIGUNEAN

#### Irailak 25, osteguna

17:00-18:30 Herrigunean auto ilarak.  
19:00-22:00 San Juan plaza itxita.

#### Irailak 27, larunbata

22:00-06:00 Idiazabal kalea itxita.

#### Irailak 28, igandea

11:00-14:00 Auto ilarak herrigunean.

#### Irailak 29, astelehena

12:00-15:00 Plaza eta inguruak itxita.

17:00-18:30 Erraldoi eta buruhandiekin auto ilarak sor daitezke.

#### Urriak 4, larunbata

10:00-02:00 Errepide mozketak eta norabide aldaketak Urrakan.

17:30-20:30 Idiazabal kalea itxita.

### BUS GELTOKI BAKARRA ZABALETAN

Irailaren 27an eta urriaren 4an Idiazabal kalea itxita izango den denbora tar- te horretan, autobusa Zabaleta inguru-ko geltokian bakarrik geratuko da:

- Irailak 27, larunbata 22:00-06:00.
- Urriak 4, larunbata 17:30-20:30.



Errespetua, horixe eskatu zuen alkatea aurtengo jaietan. 2012ko Herri Biran gertatu zena saihestu nahi dute. Orduan, auto gidari batek lasterketaren ibilbidean trafikoa bideratzen ari ziren bolondresei jaramonik egin ez eta ia ia Udal langile bat aurretik eraman zuen.

**ZURETZAKO. ASTEASUN. ORAIN.**  
ZURE ETXEA ZURE GUSTURA DISEINATU.

ETXEBIZITZA GUZTIEK  
**TERRAZA DAUKATE**

**144.000 €** -tik • azken etxebizitzak  
2 logelako atikoak • Trasteleku eta garajeak • Kalitatezko materialak eta diseinua

**628 43 66 62**  
[www.lamiategi.com](http://www.lamiategi.com)



# Urnieta pizteko gogoz

**URTE OSOAN ZEHAR EKIMEN SORTA ANTOLATZEN JARRAITU NAHI DUTE, HERRI GIROA INDARTZEKO HELBURUAREKIN.**



Poxta Zahar gazte taldeko kideak, irailaren 18an egindako elkarrizketan.

**P**oxta Zahar taldeak hamaika hitzordu antolatu ditu aurtengo Sanmieletarako. Irailaren 25etik 30era bitartean izango dira ospakizun horiek eta mota guztietako ekintzak prestatu dituzte; tortila lehiaketa, futbol partidak, kontzertuak, bertso saioa...

Lehenengo urtekoari jarraituz, aurtengo berriro olinpiadak egingo dituzte, eta egunero proba ezberdinak egingo dituzte. Proba errazak eta edonork parte hartzeko modukoak dira, eta horien artean bereziena, kamasutra proba: "Postura ezberdinetan bi pertsonen urezko globo bat erdian jarrita, hautsi egin beharko dute", azaldu dute.

Dena den, berrikuntzarik nabarmenena lehenengo egunean etorriko da. Izan ere, txoznen irekieran, ostegunean 19:30ean, asanbladak antzerki bat egingo du. "Festetako berrikuntzarik nagusia antzerkia izango da. Gaztetxearen alde lanean gabiltzanez, nahi hori aldarrikatzeko antzerki bat prestatu dugu. Herrian topatzen diren talde ezberdinak; kirolariak, musika taldeak eta, azken batean, herriko hainbat eragileren bitartez, asanbladako bilerek sortu duten herri mugimendua irudikatu dugu", azaldu du Xuban Zapiainek.

Poxta Zaharreko gazteek herria pizten ari dela diote. Urtean zehar antolatzen di-

tuzten ekintza potenteeenak Sanmieletak izan arren, urtean zehar antolatutakoak ere indarra hartzen doazela azaldu dute. "Herriko festez gain, gazte festak eta inauteriak ere antolatzen ditugu. San Silbestre lasterketa ere lehenengo urtean egin genuen lehen aldiz, eta nahiko itxuroso atera zenez, aurrera jarraituko dugu horrekin".

Izaskun Labatek dioenez, orain arte Sanmieletan jarri dute arreta, baina gauzak aldatzen hasi dira: "Orain arte horretan zentratu gara, baina herria pizten hasi da. Inauteriak indartzen hasi dira, udan ere ekintza ugari egin dugu... Geror eta ekintza gehiago egiten dugu eta horretan jarraituko dugu".

Lehenengo urtean hamar urte bete zituen taldeak eta belaunaldi aldaketa baten bidez, orain lanean dabilen gazteek hartu zuten lekukoa. "Gazteak badaude herrian, nahiz eta batzuk ezkutu egon, eta bazen garaia inizatiba guk hartzeko. Egia esan, indartzen goaz eta alde horretatik pozik gaude", dio Zapiainek. Gainera, Gaztetxea lortzeko borrokan ari dira. Udaletxearen proiektua aurkeztu diote eta beraien erantzunaren zain daude. Gazte hauen helburua ekintza ezberdinak eginez herria piztea da. Gauzak horrela, taldea pozik dago eta orain, Sanmieletako gogoz daude gazteak.

# Alkate txikiak



Hautagaien artean zozketa egin eta gero, aurtengo alkate txikien paperean Presentacion de Maria ikastetxeako Ritxar Goya eta Luzia Montero arituko dira. Kargua irailaren 30ean hartuko dute, datoren astearterean.

# Irrintzi festa

Azken bost urteetan egin bezala, aurtengo Inñistorrak irrintzi lehiaketa antolatuko du, irailaren 29an, 19:00etan hasita. Lehiaketa bi mailatan banatuko da: 14 urtez gorakoentzat eta 14 urtez beherakoentzat. Iazko V. lehiaketan, Nerea Arriaga oriotarra izan genuen irabazle helduen atalean eta Jon Tolosa urnietarra haurren mailan.

VI lehiaketa honetan ere, garaikurrarekin batera izango da sari ekonomikorik: helduen atal edo sail nagusian, irabazlearentzat 125 eurokoa izango da eta bigarrenarentzat 60 eurokoa. Sariak erabakiko dituen epaimahiak, besteak beste, indarra eta ozentasuna, abiadura, tonua, garape-



na eta kolpe bakarreko irrintzia izango dira aintzakotzat hartu beharko dituen ezaugarriak.

# Super H taldea

Super H taldeko kideek Mielaren irudia duten brotxeak salgai jarriko dituzte aurtengo jaietan. Iaz brotxerik gabe geratu zirenek aurtengo eskuratze-ko aukera berria izango dute.

Uda honetan, taldeko kideek "Gure SuperHeroien alde txapuzoi solidarioa" antolatu dute, eta hainbat lagunek ekarpenak egiteaz gain, bideoak bidali dituzte. Horrez gain, taldea sustengatzeko kamisetak eta pultserak salgai jarri dituzte. Zinemaldian, esaterako, Paco Leon aktore ezagunak pultsera jarri eta argazkia atera zuten.



**SENDA BELARRAK**  
**ELORRI**  
**HERBODIETETICA**

Ondo pasa Sanmieletak

Yurramendi, 19 © 943 556 437 - 20130 Urnieta

**Egape ikastola - SANMIEELAK 2014**

www.egape.org  
www.egapebhi.net

Jai zoriontsuak igaro!!

# Edu Muruamendiarazek *Urnietar prestu* izendapena jasoko du San Migel egunean

**SAN MIGEL EGUNEAN, IÑISTOR JAIAN, URNIETAR PRESTU IZENDAPENA JASOKO DU EGAPEN DANTZA TALDEKO IKUR NAGUSI DEN EDUR MURUAMENDIARAZ BERGARARRAK. URDURI, BAINA POZIK DAGO JASOTAKO PROPOSAMENAREKIN. OHORE BAT DELA DIO.**

**Zorionak Edu, *Urnietar prestu* izendatu-ko zaituztelako.**

Eskerrik asko. Urnietarra ez den lehena izango naiz, eta niretzat ohore handia da. Ezustean hartu nuen abuztuan egin zidaten proposamena. Herri honetan ordu asko igarotzen ditut, baina ez nuen uste horrelako omenaldirik iritsiko zenik.

**Dagoeneko ohartu zara herria karteletz jositako dagoela.**

Bada, bai! Deseroso sentitzen naiz, egia esan behar badizut. Herria ez da hain handia eta karteletz jositako dago!

***Urnietar prestu* ekimenean ibilbide luzeak eta gehienetan lan isila omendu dute. Zuk taula gaintetik maiz jaso duzu ikusle goaren berotasun hori. Urnietan hori sentitu duzu maiz.**

Bai, bestela ez nuen jarraituko. Jakin badakit nik egiten dudana baloratzen dutela, baina hortik omenaldi bat jasotzera koxka handia dago.

Antzeko omenaldia Bergaran jaso nuen, sorterrian. Bertako ohorezko kofradea naiz eta ohore handia izan zen. Iñistorrak eskainiko didana ere ohore handia izango da niretzat. Oso pozik nago, egia esan.

**Dagoeneko urduri al zaude?**

Zertxobait bai. "Hitz egin behar al dut?", horixe izan zen ahotik atera zitzaidan lehen pentsamendua. Jendaurrean dantzan aritzea nire ohiko jarduera da, baina hitz egiteak errespetu handia eragiten dit. Buruan hori dabilkit bueltaka. Niretzat hori izango da zailena.

**Omenaldi ekitaldian Egapeko dantzari talde batek parte hartu du urtero. Zu dantzaria izanik, egoera estuan jarriko dituzu dantzariak!**

Oso bitxia izango da, bai! Oso gutxitan



"Nik taldeari eman diodana bezain beste eman dit taldeak niri".

dantzatu dute niretzat. Ezkondu nintzeanean, adibidez. Nork daki! Beharbada neronek ere dantza egingo dut...

**In Fusioak ikuskizunarekin hasi dira aurtengo jaiak gainera. Aurrerapauso handia izan al da azken ikuskizuna?**

Bai, pauso handi bat gehiago eman dugu. Ikuskizunak geroz eta dimentsio

handiagoa hartzen du. Geroz eta zailagoa da, eta dantzarien jokabidea txalotzekoa da.

Koreografia berriak asmatu ditugu. Dagoeneko sorta ederra osatzen ari gara, eta meritua dantzariena ere bada. Sorkuntza lana ez baita nirea bakarrik, dantzarien proposamenak ere ikuskizunean ikus daitezke. Hori oso garrantzi-

tsua da taldeko mutil eta neskentzat. Udan egin genuen muntaia irailean errepikatu dugu. Sarobe beteta egon da, seinale onena da hori.

**Egapek zenbat zor dizu zuri?**

Zorrik ez dago hemen. Oso gustura nabil Egapen. Urte hauetan guztietan garapen handia izan du dantzak Urnietan. Egape dantza taldeak izaera bat hartu du herrian, ospe bat. Estimazioa lortu du.

Nik taldeari eman diodana bezain beste eman dit taldeak niri.

**Dantza garaikidearen aldeko apustua nondik nora iritsi zen hona?**

Prozesu naturala izan da. Aukeran dantza konpainian hasi ginen estilo honekin. Nire ibilbidean aire berritzaileak zerikusi handia izan du. Ni hona etortzean, horren aldeko apustua egin nuen eta urteek erakutsi dute apustua ona izan zela.

Gakoa, nolana ere, haurrak eta gazteak erakartzea da. Jende gaztea dantzara erakartzeko berritasuna eskaini behar diozu. Lau urterekin ikasi duten errepertorioa ezin da hogeitau urte bete arte iraunarazi. Gaur egun, gainera, gazteek aisialdian hain eskaintza zabala dutela ikusita, berritasuna eskaini behar zaie. Horrela erakarri ditugu hemen. Egapeko koreografia berrietan gazteek parte hartzen dute. Neu hor nago baina pauso edo dantza batzuk euren sortutakoak dira. Eta hori gozame-na da haientzat eta, noski, niretzat. Dantza gogoko izan behar dute.

Nik dantza bizi dudana bezala, nire ikasleak horren erdia sentitzera iristen badira, pozarren geratuko naiz.

Gustura etorri behar dute dantzara. Niretzat sari bat da hiru edo lau urterekin hasi ziren ikasle horiek hogeitau urterekin Egape dantza taldean jarraitzea.

**on bizi**

**Urnietan hazi, on bizi eta erosi**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ELSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

on bizi urnieta

**Gaztelo**

GOZOTEGI ARTISAUUA  
BONBONERIA

**Gora Sanmielak!**

Errekalde kalea, 14 - 20.130 URNIETA - 943 008 406  
Zarautz ibilbidea, 76 - 20.018 DONOSTIA - 943 226 584



# Gertukoak omenaldiarekin pozarren daude



**Jaione Jauregi**  
Eragile taldeko kidea

Zortzi urte izango dira Egapeko guraso batzuk kultur elkarte sortu eta Eduri lan berriak eskatzen hasi zirenetik: Dantza-sokaren berreskurapena, euskal dantzak helduentzat... Denbora horretan taldeak izan duen garapena ikusgarria izan da: "Proposamena luzatu genionean ez genuen imaginatzen elkartek horrelako garapena izango zuenik". Gaur egun sortu den dinamika handia da, eta denbora asko eskaini behar zaio. Elkartearen martxan laster belaualdi berrien txanda iritsi behar duela uste du Jaionek.

Egapek Iñistorra elkartearen eskutik jaso zuten omenaldiaren berri. Poza sentitu zuen Jaionek, "poztu nintzen, ikaragarri. Horrelako omenaldiak personalizatzearen aldekoa ez naiz izaten, baina egia da kasu honetan Eduk egin duena berak bakarrik egin duela. Alboan izan gara, baina meritua berea da. Harritu egiten nau berak egunerokoa entseguetan nahiz saioetan erakusten duen pasioa. Oso erraza da berarekin lan egitea. Alboan izaten dugu, ekimen berrietarako beti prest".



**Eider Manterola**  
Dantzaria

Eiderrek Edu izan du betidanik irakasle, harik eta hiru urterekin taldean sartu zenetik. Elkar ondo ezagutzen dute, eta hainbeste ikasleren artean Eiderrek uste du berak hobeto ezagutzen duela Edu, "entseguetan zorrotza duen itxura du, baina bakoitzaren garapena norberaren esku uzten du. Zeu saiatzen zarela ikusten badu, dena emango du zure alde. Eta are eta exigentzia maila handiagoa ezarriko dizu. Gaietan egoten da, laguntzeko prest".

In-Fusioak ikuskizunean txalo zaparrada jaso zuten Saroben, lana gogotik egin eta geroko saria izan zen hura. Maila handikoa izan zen ikuskizuna, "eta hasieran urduritasun handia sentitzen da. Azken 3-4 dantzatan, ordea, gozatu egiten dugu".

Omenaldia dela eta, hausnarketa ederra egiten du Eiderrek, "jakin dut saria ez zaiola sekula eman Urnietakoa ez den norbaiti. Eta alde horretatik Eduri ematea ondo iruditzen zait. Ideia ona da sari horrekin nolabait urnietartzat hartua izango delako. Urnietaren alde lan asko egin du, nik uste dut merezi duela".



**Idurre Urreaga**  
Dantzarien ama

Egape dantza taldeko Irati eta Aitzol Otegiren ama da, "dantzaria izan naiz, eta Edu alor horretan aspaldi ezagutu nuen. Alaba dantzan izena ematera eraman eta irakaslea Edu zela adierazi zidatenean, ez nuen sinesten. Ez da posible noien, Urnietaren tamainako herri batean Eduren mailako irakaslea izatea kostatu egiten zitzaidan sinestea".

Egaperen gakoetakoa Edu dela dio, ziurtasun osoarekin: "Hain herri txikian hainbeste haur erakartzea, Eduk lortu duena ikusgarria da. Kanpora joaten direnean ere jendea zur eta lur gertzen da. Ama bezala positiboki baloratzen dut bere lana. Berak egiten duena oso toki gutxitan ikusten da. Neronek dantza tradizionala oso gogoko dut, baina berak lantzen duen fusio hori ikaragarria da".

Omenaldia merezi duela dio, "gogo handia erakusten du entsegu bakoitzean, haur eta gazteekin pazientzia ikaragarria du. Luxu bat da bera gure artean lanean aritzea. Merezi du. Eta, gainera, dantzaren arloan Urnietari hainbeste eman dio! Merezitako saria da".



**Edurne Arzelus**  
Egape ikastola

Edu Muruamendiaraz Urnietara etortzearen *errudun* dela esan daiteke: "Ondo ezagutzen nuen Edu, elkarrekin dantza egin genuelako. Banekien oso tematia dela bere lanean, eta ilusio handiarekin lan egiten duela". Egape ikastolan lehenagotik zegoen irakasleak utzi zuten, Edurnek Eduri deitu zion Egape dantza eskolak eman zitzaizkion: "Hasieran bion artean osatu genuen taldea eta poliki-poliki berak jarraitu zuen. Taldea gero eta anitzagoa eta zabalagoa zen, gaur egun oso finkatuta dagoena". Orain erraza da kontuak egitea, baina Edurnek imaginatzen al zuen Egape horrelako garapena izatea? "Nik banekien Eduk ukitutako edozein gauza ondo aterako zela. Txikitandik ezagutzen dut, badakit nolako den eta banekien ondo irteerako zela".

Iñistorrak Muruamendiaraz omentzean egin duen salbuespenarekin erabat ados dago, "bat nator hartu duten erabakiarekin. Ez da bertakoa izan beharrik Urnietaren alde egiteko. Eta uste dut Eduk asko egin duela Urnietaren alde".

## Iñistorrak aitortu dizkion merezimenduak

Hauek izan dira, Urnietar Prestu 2014 saria erabaki duen epaimahaiak aintzakotzat izan dituen merezimenduak:

- Batetik, Urnietan ohitura eta usadiozko euskal dantzak erakusten eta horiei arnas berria ematen egin duen lan nabarmen eta aipagarria, euskal dantza belaualdi berriei erakargarri eginez.
- Bestetik, usadiozko euskal dantza sorta zabal bat ikuspegi berritzailez eraldatzen eta berritzen asmatu du, maiz dantza garaikidearen ezaugarriez, baina baita ere bere-berea duen estiloaz, Egape dantza taldea euskal dantza berritzailearen eredu eta adibide bihurtuz Urnietan bertan eta, baita herritik kanpo ere, Euskal Herri osoan.
- Azkenik, dantza-ikuskizun moderno eta plastikotasun estetiko handikoak, oso ederrak, sortu ditu aipatu dantza taldearekin, Urnietan ekoitzi diren beste ikuskizun batzuetarako, oso bereziki aipa liteke, "1936" antzerkia.

**IÑISTOR JAIAN OMENDUTAKOAK:**

Martxeli Gorriti	2008
Praixku Belauntzarán	2009
Juantxo Gorostidi	2010
Urnietako emakume baserritarrak	2011
Juanito Iguaran, Martín Lizeaga	2012
Iñaki Aranzadi	2013
Edu Muruamendiaraz	2014

Mikel Goya eta bere lantaldeak  
jai zoriontsuak opa dizkizue  
**Tel.: 943 550 480**

**ITXASPE** Sanmiel jai zoriontsuak!  
FRUTATEGIA, IZOZKIAK eta GOZOKIAK  
Zelaialde, 2 • URNIETA TEL.: 943 009 427

# Udalak aurten euskaltzaleak omenduko ditu

**EUSKARAREN ALDE LANEAN MURGILDU DIREN PERTSONAK ETA ELKARTEAK OMENDUKO DITU URNIETAKO UDALAK, SANMIELETAN ANTOLATZEN DUEN OMENALDI EKITALDIAN. DATORREN ASTELEHENEAN IZANGO DA, EGUERDIKO HAMABIETAN HASITA.**

Aurtengo Sanmieletan, Udalak gorazarre egingo die euskararen alde lan egin duten pertsona eta elkarteei. Horien artean Hiazinto Fernandorenarena da ibilbide luze eta oparoena. Euskara iraunarazten eta sustatzen lan handia egindakoa da, Urnietan zein Euskal Herrian. Fernandorenak urte hasieran gertuko eta euskaltzaleen omenaldia jaso zuen Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean. Sanmieletan merezitako omenaldia eskainiko dio Udalak. Berarekin batera bi elkarte omenduko dituzte, Banaiz Bagara eta Iñistorra. Banaiz Bagara elkarte atzerriarrak euskararen mundura gerturatzeko lanean nabarmentzen ari da, bereziki. Iñistorra elkarteak, bestalde, Urnietan euskara eta euskal kultura sustatzeko Iñistor jaia edota San Tomas eguna antolatzen ditu.



Hiazinto Fernandorenarena.



Petra Elser, Banaiz Bagara.



Jon Unanue, Iñistorra elkarte.

## On Biziren oharra

Merkatarien elkarte sortu zenetik, parte hartze bizia du herriko gizarte bizitzan, jaietan edota Eguberrietan antolatzen dituen ekitaldien bitartez. Aurreko astearen amaieran, On Bizi elkarteak oharra zabaldu zuen herriko eskaratzeetan, maskota lehiaketa eta dendarien postu azoka bertan behera geratu zirela ohartaraziz: "Lerro hauetatik Jai batzordeari eta Urnietan herriari barkamena eskatzen diegu bere garaian aldaketan berri ez emateagatik".

## Bertso afaria

Miela batzordeak azken urteetan antolatu duen bertso afariari eutsi dio aurten ere. Urriaren 4an kantuan arituko dira Oianumen Beñat Gaztelumendi eta Iker Zubeldia bertsolariak. Afaria iluntzeko 20:30etan hasiko da. Txartelak dagoeneko salgai daude Xauxar, Amaiur, Kantoi eta Oianume tabernetan 25 euroko prezioan. Azken urteetan giro ederra sortu da afa-losteko bertso saioan.

## Urrakako jaia

Urriaren 4an paella jatea eta kalderetea antolatu dituzte Urrakan, aurtengo jaien egitarauaren baitan. Paella bazkarirako izango da, eta gauean kalderetea. Txartelak salgai daude 18 euroko prezioan. Herriko etxea edo Casa del pueblon, urriaren 1a bitarte. Jatordu horiekin batera toka eta bote txapelketak eta haur ikuskizunak iragarri dituzte. Hawaii giroko disko festarekin amaiera emango diote ospakizunari. Urnietar guztiak gonbidatuta daude.

## Sanmielak 2014

### Irailak 29

### VIII. Iñistor jaia Jakutegi plazan

**12:30 VIII. Maldan-gorako Iñistorra Toka Txapelketa, San Juan plazan.**

**14:30 Herri bazkaria.**

**Helduentzako menua 25€**

Bertan egindako paella, zekor biribilkia (redondoa) barazki eta patata purearekin, esnegainezko ijito besoa (brazo gitanoa) kremaz egindako saltsa eta kanelarekin, kafea eta belar txupittoa, kofiaka edo patxarana.

**Haurrentzako menua 16€**

Makarroiak tomatea eta urdaiazpikoarekin, eskaloepa txip patatekin eta sandwix izozkia.

**Bazkarirako txartelak aurrez erostea ezinbestekoa da.**

**Azken eguna: irailaren 26a.**

**Jadanik salgai daude ondorengo lekuetan: URNIETAN.**

- KANTOI taberna (San Juan plazan)
- AMAILUR taberna (Idiazabal kalea)

**16:30 Bertsolariak**

Andoni Egaña (Zarautz), Uxue Alberdi (Elgoibar), Nerea Elustondo (Legazpi), Iñigo Manzisidor, Mantxi (Zarautz).  
Gai jartzailea: Amaia Agirre (Villabona).

**17:30 "Urnietar Prestu" 2014 izendapena.**

**Edu Muruamendiaraz** dantzaria izango da omendua.

**19:00 VI. Maria Arizmendi irrintzi lehiaketa, San Juan plazan.**



Antolatzaile: Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra, Manuel Larramendi Kultur Bazkunea.  
Laguntzaile: Txanbolin txistulari banda Egape Dantza Taldea. Banaiz Bagara elkarte.  
Babesle: Urnietako Udala Aiurri astekaria.

Bazkarirako txartela erosteko azken eguna irailaren 26a

# Barraren bestaldean

**GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK ETA TABERNARIEN ARDURAN HASIBERRIAK. BATA PLAZAN, BESTEA IDIAZABAL KALEAN.**



**Miriam Carro**  
Kantoi taberna

Hernaniarrak maiatzean hasi zuen Kantoi tabernaren ibilbide berria, eta ez da batere damutzen: “Oso gustura nago, oso esperientzia ona izaten ari da. Bezeroek harrera ona egin didate. Hasieran ohikoa den urduritasun hori bannuen, baina berehala ikusi nuen jendea oso jatorra zela. Lekua ere oso polita da lan egiteko. Hasiera ona izan da eta bertan jarraitzea espero dut”.

Urnieta ezagutzen ari da, geroz eta gehiago, “lehen festak eta ezer gutxi ezagutzen nituen. Orain geroz eta gehiago, herritarren bitartez bereziki”. Aurten festetan ordu asko sartuko ditu, baina barraren bestaldetik, “lanean nabilela lehen sanmielak izango dira aurtengoak. Mutil bat hartu dut egunez laguntzeko, eta senarra ere lanean jarriko dut. Goizeko hamarretan taberna irekiko dut, eta goizaldera arte”.

Zer dela eta tabernaren ardura hartzea? Beharrak eraginda hartu zuen lana: “Jendaurrean lan egin dut beti. Langabezia nengoen eta Kantoiko ardura hartzeko aukera izan nuen”.

Jaiak iristeko gogoz dago, desio bikoitzarekin, “eguraldi ona izatea espero dut, eta lan asko egitea ere bai”.



**Amaia Martin**  
Amailur taberna

Bi urte dira Amailur tabernan hasi zela, eta bere esperientziaren arabera, egonkortzeko denbora behar izan du: “Hasiera lasai samarra izan zen eta pixkanaka lan erritmoa goruntz doa”. Ostalaritza ikasita, besteentzat lanean aritu ondoren bere negozio propioa izateko apostua egin zuen, “besteentzat lan egiten badut, zergatik ez nire kabuz hasi? galdera hori egin nion nire buruari Amailurren sartu aurretik”.

Idiazabal kalean izanik, jai giroa eta zehatzetan nabaritzen da bere tabernan: “lan gehiago izango da eta, beraz, jende gehiagorekin lan egin beharko dut. Jaiak direla bereziki iluntzean eta afaltzeko ordu horretan nabaritzen dugu. Egunean zehar oso une zehatzetan, kalejira edo trikipoteoaren kasuan esaterako, orduan bai nabaritzen dugula mugimendu gehiago”. Dagoeneko aurreko asteburuan, danborradarekin eta herri kirol desafioarekin sanmieletako giroa nabaritzen hasi zen.

Jaiak izanik ere, Amaiak taberna goizero bezala 07:30etan irekitzen jarraituko du. Eta itxi? Bada, goizeko ordu txikietan izango da hori. Lanaldi luzeak egunak datozkio, beraz, Amaiairi.



*Xoxokako eta Sanmiel festa zoriontsuak opa dizkizuegu*

**Adarra jatetxea**

Goiburu auzoa (Xoxoka). 20130 Urnieta. Tel.: 943 552 036

# Txapeldunak musean



Aurreko asteburuan jaien atariko mus txapelketa antolatu zuten Etene-ta elkarteak. Leandro Belaunzarán

eta Jose Maria Santamaria bikoteak irabazi zuen finala, Peio Martín eta Josep Ramio bikotea gaindituz.

## Aiurri.com gunea

Aurreko urteetako joerari eutsiz, aurtengo jaietan ere Aiurri.com webgune-ko edizio jarraituak albiste berrienak eskainiko ditu. Egunez eguneko egitarau zehatza argitaratzeaz gain,

aurreko eguneko argazkiak eta bideoak ikusgai ipiniko ditu. Webgunean bezalaxe, sare sozial ezagunenetan Aiurrik dituen guneetatik aurtengo jaietako berri eskainiko da.

## ELKARTASUN TONBOLA SOLIDARIA

**SANMIELETAN 25etik 30era, PAUSOKAren txoznan**

Una pata de jamón ibérico, bazkari eta afariak, masajes, sukalderako plantxa, una cesta de verduras de temporada, deskontu baleak...

ESKERRIK ASKO DENEI LAGUNTZEAGATIK

Aballarri	Egur	Gurutzeta (Moko)	Nam Nam jatetxea
Adarra mertzaria	Elorri Belardenda	Hachas Jauregi	Oianume jatetxea
Alai Masajes	Estanco	Ikasmin	Onddi Optika
Alde Zahar Lore	Etxaniz	Islada	Ortopedia Plantia
Amailur	Etxezarreta Familia	Iturbe altzariak	Osane
Balerdi harategia	Fagoaga	Itxaso arraindegia	Pedro Mayo
Basque Cooltour	Familia Muñoz Rosco	Itxaspe	Peluqueria Idoia
Besabi jatetxea	Farmacia Odriozola	Kaiku	Peluqueria Juanamari
Biak kafetegia	Farmacia Tanco	Kutxabank	Poxta Zahar
Bikain kafetegia	Floristería Edurne	La Caixa	Real Sociedad
Caja Laboral	Frontoi taberna	Lekar estilistas	Talleres coches Alex
Caja Rural	Frontón Galarreta	Matxo edaritegia	Trazos ileapaindegia
Casa Eceiza	Frutería Toñi	Mil cetas	Trikiti
Colors	Gaztelo	Muazpi harategia	Urnietako baserritarrak
Denontzat	Goi-mendi	Muebles Gloria	Xauxar
Droguería Rosa	Goya harategia	Mujika Janariak	Zaldundegi
Olazabal	Groupama	Autoservicio	Zergatik
Eder denda	Guria	Naranjas Gipuzkoa	

# Sanmielak 2014 Urnietan, jaien egitaraua

## IRAILAK 25, OSTEGUNA

### JAIEN HASIERA

- 17:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira.
- 18:00 Olinpiadak: Patin lasterketa plazan.
- 18:45 Kanpai jotzea. Mielaren jaitsiera eta pregoia.
- 19:00 Txupinazoa.
- 19:15 Batukada plazatik txosnagunera Buruntzantzan eta Funky tailerreko gazteekin.
- 19:30 Txosnen irekiera.
- 20:00 Tortilla lehiaketa.
- 22:30 Olinpiaden aurkezpena txosnagunean.
- 23:00 Rockabilly gaua txosnagunean.

## IRAILAK 26, OSTIRALA

- 16:30 Mahai joko txapelketa Denda Berrin.
- 18:00 2013ko irailaren 1etik aurrera jaiotakoei jaietako zapia jarriko diete Kontzejupean.
- 19:00 Koadrilen arteko Futbol txapelketaren finalak kiroldegian.
- 19:30 Erromeria plazan: Laiotz.
- 20:00 Antzerkia Saroben: Ttamtakaren "La calma magica".
- 21:00 Oilasko-jatea txosnagunean.
- 23:00 Kontzertuak txosnagunean: Kaotiko, Glaukoma eta Sangre de Mono.
- 02:00 Olinpiadak: Aulki jolasa txosnagunean.

## IRAILAK 27, LARUNBATA

### KOADRILEN EGUNA

- 10:00-14:00 / 16:30-20:00 Artisau azoka San Juan plazan, Gabiltza elkarteak antolatuta.
- 11:00-14:00 Haurren dardo txapelketa Dardoka elkartearen.
- 12:00 Emakume koadrilaren irteera plazatik, txaranga lagunduta.
- 12:00 Helduen Kontzejupeko pala txapelketako finalak.
- 13:30 Olinpiadak: globo jolasa plazan.
- 13:45 Anplipoteoa.
- 13:45 Bazkari herrikoia txosnagunean. Ondoren, Olinpiadetako probak Lourdes Iriondo parkean.
- 16:30-18:30 Haurren ginkana Plazido Muxika plazan.
- 16:30-22:00 Helduen dardo txapelketa Dardokan.
- 17:00 Olinpiadak: Trago-lokoxa jokua Zaldundegiko plazan.



- 17:00 Emakume koadrilaren bigarren irteera.
- 18:00 Dantzaldia Plazido Muxika plazan, Denda Berrik antolatuta.
- 18:00 Konga, kale antzerkia plazan.
- 18:30 Rock kamioi ibiltaria herrian zehar Poxta Zahar elkarteak antolatuta.
- 19:00 Urdanbor danborradaren lehen saioa.
- 23:00 Azabache taldea plazan.
- 23:00 Kontzertuak txosnagunean: Los Zopilotes Txirriaos eta Bad Sound System.
- 23:30 Urdanbor danborradaren bigarren irteera.
- 02:00 Olinpiadak: Kamasutra jolasa txosnagunean.

## IRAILAK 28, IGANDEA

- 10:00-13:00 Perurekin elkartearekin txorizoa eta sagardoa plazan.
- 11:00 Kalejira Urnieta, Andoain eta Hernaniko txistulariekin.
- 12:00 Egapedanbor eta Presentación de Maria haur danborrada plazan.
- 12:30 Galiziar folklorea Chori-ma taldearen eskutik, plazan.
- 12:30 Pintxo potea jubilatuentzat.
- 17:00 Txokolatada txosnagunean.
- 18:00 Magia ikuskizuna txosnagunean.
- 18:30 Zesta punta jaialdia pilotalekuan.
- 19:00 Bi bala bertso ikuskizuna.
- 19:30-21:30 Talo postua txosnagunean.
- 20:30 Dantza-Soka herrikoia.
- 21:00 Olinpiadak: sari banaketa txosnagunean.
- 21:30 Olinpiadak: Ginkana zinkina txosnagunean.
- 22:00-02:00 DJ saioa txosnagunean.



## IRAILAK 29, ASTELEHENA

### SAN MIGEL EGUNA

- 09:30 Diana.
- 10:45 Udaletxetik elizara alkate soinu.
- 11:00 Meza.
- 11:00 Gorriti eta bere animaliak Plazido Muxikan.
- 12:00 Toka txapelketa plazan.
- 12:00 Udal omenaldia udaletxean. Ondoren, Txanbolin txistulari bandaren emanaldia plazan.
- 14:00 Denda Berriren bazkaria Oianumen.
- 14:00 Inñistor jaia: bazkari herrikoia eta bertso saioa: Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Nerea Elustondo eta Inigo Manzidor. Gai-jartzaile: A. Agirre.

## www.aiurri.com

Jaien jarraipen zabala Aiurriko webgunean eta Internet sareko gune ezagunetan.

- 17:00 Edu Muruamendiarazi *Urnietar Prestu 2014* izendapena Inñistoraren eskutik.
- 17:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira.
- 18:30 Pilota jaialdia: Erremontean eta esku-pilotan.
- 19:00-21:00 Hegaluze eta sargardo dastaketa plazan.
- 19:00 Irrintzi lehiaketa plazan.
- 19:00 Erromeria plazan Gaubela taldearekin.
- 21:00 Olinpiaden amaiera ekitaldia txosnagunean.

## IRAILAK 30, ASTEARTEA

### HAURREN EGUNA

- 09:00 Diana.
- 10:30 Alkate Txikien izendapena Udaletxean.
- 11:00-13:00 / 16:30-19:00 Haur eta gazte parkea Egapeko jolastokian.
- 16:00 Kontzejupeko eskupilota txapelketaren finalak.
- 17:00 Tomax eta Musugorri pailazoak plazan.
- 18:00-21:30 Bosko Anitz Txarangaren kalejira erraldoi eta buruhandiek lagunduta.

- 19:00-21:00 DJ Xaibor plazan.
- 20:00 Alkate Txikien botere uztea udaletxean.
- 21:00 Jaien amaierako mezua- ren irakurketa.
- 21:05 Mielari agurra, aurreku herrikoia dantzatzuz.
- 21:10 Mielaren igoera.
- 21:25 Zezen suzkoa eta traka.

## URRIAK 4, LARUNBATA

- 11:00 Toka eta Bote txapelketa Urraka auzoan.
- 12:00 Sardina jatea Plazido Muxika plazan.
- 14:00 Paella jate herrikoia Urrakan.
- 15:30-18:30 Futbolin erraldoi txapelketa Egapen.
- 17:00-20:00 Haur ikuskizuna eta ur-zezenen entzierroa Urrakan.
- 18:30-20:30 Urnietako I. Txirringularitza Kriteriuma Idiazabal kalean.
- 19:00 Saroben Aurrera Gure Ametsa eta La Rondalla de Esplus (Huesca).
- 21:00 Kalderetea Urrakan.
- 22:00 Disko-Festa Urrakan.
- 22:00 Bertso-afaria Oianumen: Beñat Gaztelumendi eta Iker Zubeldia.

## URRIAK 5, IGANDEA

### BASERRITARREN EGUNA

- 09:30 Diana.
- 11:00 Meza Nagusia.
- 11:30 Zaldi proba probalekuan.
- 12:00 Pintxo-potea eta Munduko Ardoak Jakutegi plazan, Batzoki elkarteak antolatuta.
- 12:00 Ingurutxoa eta XIII. Jalgi Plazara jaialdia Aurrera Gure Ametsa taldearen eskutik, plazan.
- 17:00 Herri kirol erakustaldia probalekuan. Herriko trikitilarien kalejira.
- 18:00 Txekor jatea eta sargardo dastaketa plazan.
- 19:00 Dantzaldia: Egan.
- 21:15 Zezen suzkoak eta azken traka.



## CERAMICAS NOGALES S.L.

URNIETA



- Sukaldeko altzariak
- Aluminio aroztegia
- Egur aroztegia
- Elektrizitatea
- Igeltsua
- Hargintza
- Iturgintza
- Pintura

Ondo pasa Sanmieletan

Errekalde, 10  
20130 Urnieta  
Tel./Faxa: 943 009 284  
Tel.: 943 550 624  
[ceramicasnogales@ceramicasnogales.com](mailto:ceramicasnogales@ceramicasnogales.com)

## FUTBOLA

# Xanti Bakero, futbolaren langilea

Xanti Bakerok Espainiako bi ligen irabazle mitikoekin jokatu zuen Realean, baina inoiz ez zuen izartzat hartu bere burua. Buzoa jantzita taldearen mesedetan lan egin ohi duen jokalaria izan zen Tos-

hackekin. Egun, astelehentik larunbata bitartean lantoki batean lan egiten du andoaindar honek, eta denbora daukanean, Realeko beterranoen taldeko jokalaria eta entrenatzailea da.



## Andoaindarrak Real Sociedad taldean (2)

Aiurri 410 Jon Gaztañaga.  
Aiurri 411 Xanti Bakero.

### Futbola erabat utzia al daukazu?

**Xanti Bakero:** Keba! Realeko beterranoen taldean jokatzen segitzen dut. Bi ligak irabazi zitueneko belaunaldiaren ondorengo jokariak biltzen gara Zubietan, astean behin. Jokin Uria, Iñigo Arteaga, Migel Fuentes, Enrike Irazoki, Mikel Loinaz... Neu naiz entrenatzailea. Areto futboleko liga jokatzen dugu, indoor liga, baina batez ere partida benefikoetarako deitzen gaituzte; kausa on baten alde dela, pertsona jakin bati omenaldi ekitaldia dela... Tarteka, ligen irabazleak ere agertzen zaizkigu, eta modu testimonialean minutu batzuk jokatzen dituzte. Gastuen edo afari baten truk joan ohi gara. Ederki moldatzen gara geure artean!

### Ez al zara animatzen entrenatzaile izatera?

**X.B.:** Ez. Denbora behar da, eta hastekotan, gaztetxoekin hasi behar da. Eta ikusten dena ikusita, mundu zaila iruditzen zait. Gurasoek gehiegi agintzen dute, eta ez nago borroka horretan sartzeko... Nahiago dut bazter batetik ikusi futbola. Bekatua da gurasoak futbol zelaietara joatea semeak ikustera. Eta hori ni ere guraso izanik esaten dut! Zenbat gaztek ez ote dituzten entzun beharko denetariko aginduak: entrenatzaileak gauza bat, aitak kontrakoa eta amak auskalo zer. Utzi semeek jokatzen lasai!



Xanti Bakero Andoainen bizi da aspaldian.

### Ez ohikoa izan zen zure ibilbidea jokalaritza gisa, Realera iritsi bitartekoa...

**X.B.:** 27 urte nituela fitxatu ninduen Realak! Añorgan jubeniletan hasi nintzen 14 urterekin. Goizuetan bizi ginen baina aitak Rezola enpresan lan egiten zuenez, auzo hartara joan ginen bizitzera. 18 urterekin enpresa horretan lanean hasi nintzen; aita hil zitzaizgun, eta hamaika senide ginen... Futbolarekin gozatzen segi nahi nuen, eta hirugarren mailan zebilen Michelin taldean hasi nintzen, Migel Etxarri entrenatzailearekin.

Bi urtera, Paco Gento Palentziako entrenatzaileak hots egin zidan, hara joateko eskatuz. Etxean familiarekin ondo aztertu ondoren, abenturari baietz esatea erabaki genuen. Buruan ez neukan futbolarekin bizimodua ateratzea, eta eszedentzia eskatu nuen Rezolan.

Palentzian lehenbizi eta Herculesen ondoren, denboraldi mordoan egin nuen 2. eta 2B. mailetan. Azkenekoan, 1985-1986koan, Herculesekin lehen mailan jokatu nuen; zortzi gol sartu nituen, erdilari izanda, Kempes ondoan bainean. Ez zuen gehiegi korritzen, baina

aparta zen baloiak egoki jartzeko. Azkenean, jaitsiera postuetan amaitu genuen, eta orduan Realak deitu zidan.

### Realean hiru denboraldi, izarrez inguratuta.

**X.B.:** Zoragarriak izan ziren urte horiek, bi lehen denboraldiak batez ere. Toshacken agindutara, Arkonada, Gorritz, Gajate, Begiristain, Joxe Mari anaia, Rekarte, Zamora, Lopez Ufarte..., eta gainerakoak. Bi kopa final jokatu genituen, eta bata irabazi Zaragozan, Atletico Madrident aurka. Ligan ere bigarren geratu ginen, eta Europan ibili ginen. Talde handi hartan titular izateko zoria izan nuen, 90 bat partida jokatuz, eta hiru bat gol sartuz.

Egia esan, nire kasua ez zertorren bat Realaren filosofiarekin, alegia behetik goranz doan harrobiko jokariarekin lan egitea. Zalantzak neuzkan funtzionatuko ote nuen Realean, baina diziplinatua izan naiz beti, eta Toshackek agintzen zidana betetzen saiatu nintzen.

### Galestarrak sistema berritzaileak asmatu zuen zurekin...

**X.B.:** Ingalaterratik edo ez dakit nondik ekarrita, pibotearen

*"Gaztañagari gauza bat ikusten diot bikain egiten duena: inoiz ez du baloia galtzen"*

postua ezarri zuen Estatuko ligan, bi defentsen aurretik jokatzeke. Konfiantza jarri zuen niregan, eta oso gustura jokatu nuen. Kazetariak eta zaletuek nigan jartzen zituzten begiak hasieran, zeharo harrituta!

Egia esan, Gorritz eta Gajate atzean edukitzen nituen eta egundoko laguntza ematen zidaten. Begiratu hutsarekin bagenekien nork zer egin behar zuen eta zer ez.

### 30 urterekin, erretiroa...

**X.B.:** Toshack Madrileran joan zen, eta Boronat eta Iriarte heldu ziren; nirekin ez zutela kontaktzen esan zidaten. Orduan Cadizetik eskaintza jaso arren baina ezetz erantzun nuen. Familia jada hemengo bizimodura egokitua zegoen, eta gainera, uste nuen Cadizen eman ezingo nukeena exijituko zidatela.

### Lehen mailako futbol jokariak erretetatik bizi omen zarete...

**X.B.:** Ni behintzat ez nintzen aberastu. Astelehenetik larunbatera lanean jarraitzen dut taberna batean.

### Esan ohi da, halaber, fama ezagutu ostean, kolpe latza hartu ohi dutela jokalariek askok fama edukitzetik pertsona arrunta izatera pasatzen direnean...

**X.B.:** Nik ez dut sentitu halakorik, sekula. Badira, bai, kosta egiten zaienak bizimodu berrira moldatzea. Profesionala izan nintzen garaian, denboralditik denboraldira galdera berbera egon ohi nion nire buruari: "aurten jokatuko al dut?". Borroka egin beharra zegoen egunero, zera! Nire burua ez nuen izar baten antzera ikusi sekula, nahiz eta Arkonada, Zamora, Lopez Ufarte eta horien ondoan jokatu. Ni kon-

tziante izan nintzen beti-beti, futbolarik bi klaseko jokariak behar dituela: izen handikoak eta langileak, eta neu bigarren-go taldekoa nintzela.

### Kalean ezagutzen al zaitu jendeak?

**X.B.:** Batzuk bai! Badira iraganez bizi direnak, hasien zaizkizunak esanez garai haiek jokariak zirela arrazakoak, ez oraingoak. Niri poza ematen didatenak, tarteka identifikatzen nauten gaztetxoak dira; garai haiek ezin izan zituzten bizi, baina nola edo hala badakite ni ere tartean nintzela!

### Aspaldiko partez, Andoaingo gazte bat Realera iritsi da. Nola ikusten duzu Gaztañaga?

**X.B.:** Ongi! Hankak lurrean dauka, eta badaki zertan dabilen. Zelaian lekuari ongi eusten dio, baloia ongi babesten daki. Eta gauza bat ikusten diot bikain egiten duena: inoiz ez du baloia galtzen. Hori ez da txorakeria, e! Estrategiak, sistemak eta nahi dituzunak geroz eta konplikatua izango dira futbolekoan, baina zera izango da oinarritzakoa: baloia lagunari ematen badiozu, eta lagun horrek ere hirugarren bati ematen badio, taldea izango da beti baloiaren jabe. Ez duzu aurkariaren beldur jokatuko beharko.

### Zure eskarmentuaz baliatuta, zerbait aholkatuko al zenioke?

**X.B.:** Erraza da kontsejuak ematea... Ezer esatekotan, esango nioke lan eta lan egin dezala eta pazientzia eduki. Hori bai, ez ahazteko futbolarik gain bizitza badagoela. Alde horretatik, orain ikusten zaion mutiko umil eta normala izaten jarrai dezala, betiko moduan lagunekin-eta kalean egin dezala bizimodua.

Dohainak badauzka, eta etorri behar zaiona etorriko zaio. Suerre pixka bat edukitzea (lesioekin batez ere), horixe da bere eskutian ez dagoen gauza bakarra.



## KIROL ALBISTEAK

# Ehundik gora partaide

Eguraldi zoragarria, ia 150 bizikletazale. Guztiak ere min handirik hartu gabe helmugara iritsita. Ezin arrakastasutagoa gertatu zen Leitz elkarteak antolatu zuen MTB mendi bizileta maratoia.

Luis Mari Irizar izan zen garaile mutiletan (2:04:54), Saioa Sagastibeltza emakumeetan (3:56:03). Txema Sanchez (2:05:02) 25 km.ko ibilbide ertaineko irabazlea izan zen.



Josu Arregi, Francisco Javier Gonzalez eta Emilio Aldaz andoaindarrak.



Irteeran lasterketaz gozatzeko irrikitan zeuden partaide guztiak, irribarra ezpanetan zutela.



Ana Isabel Mujika itsuak eta haren laguntzaile Jon Tameronek tandem bizikletan osatu zuten proba, 2:42:21etan amaituz 25 km.ko ibilbide ertaina.



Leitzako koadrila batek ere ez zion hutsik egin Leitzarango parajeetan lehiatzeko aukerari. Tartean, emakumeetan irabazle izan zen Saioa Sagastibeltza.



Aritz Usabiaga eta Luis Mari Urizar bilabonatarak. Urizar iritsi zen lehena Etxeberrieta plazako helmugara.



Eñaut eta Iker Egaña aita-semeak gogor eragin zieten pedalei.



Ia ehun boluntarioen lanari esker primeran burutu zen lasterketa.



## KIROL ALBISTEAK

# Herri Biran garaile

Asier Martinez pozarren dago Urnietako Herri Bira irabazi zuelako. Irabazten duen lehen lasterketa da, eta ez nolana hiko. Herrian bertan eta herritarren aurrean lortu zuen balentria.

**Zorionak Asier. Lehen lasterketa irabazi duzu, non eta zure herrian bertan.**

**Asier Martinez.** Eskerrik asko. Halaxe da, bai. Oso pozik nago.

**Amaiera estua izan al zen?**

**A.M.** Javier Perez irundarra eta ni elkarrekin joan ginen, azken aldapara iritsi arte. Azken 50 metroetan alde egin nuen helmugara lehenengo iristeko. Lasterketa osoan bere atzetik joan nintzen, bere erritmoa eusten. Aukera gutxi nituela banekien, baina azken metroetan sprintean irabaz nezakeela pentsatuz korri egin nuen. Azken bihurgunean topera jo nuen, eta helmugaraino.

**Txirindularitza gogoko al duzu?**

**A.M.** Txirindularia izan naiz.

**Zure garaipena azaldu duzun moduan, Espainiako itzuliko hainbat etapen modu beretsuan erabaki da.**

**A.M.** Bai, ezta? Antzeko estrategia izan da. Nire aurkaria seigarren kilometrotik aurrera ni baino indartsuago zihon, eta bere erritmoari eusteko gai izan nintzen. Eusten banion azken metroetan garaitzeko itxaropena banuen, eta halaxe izan zen.

**Lasterketa barruan bizi izaten diren xehetasun txiki horiek, ikusleok maiz ikusten ez ditugunak.**

**A.M.** Lehen sei kilometroetan hiru korrikalari eroso joan ginen. Haizeak jotzen zuen eta haiekin batera babesean joatea erabaki nuen. Javier Perezek orduan erritmoa nabarmen bizitu zuen eta hura eusteko lanak izan nituen.

**Garaipenaz gozatzeko aukera izan al zenuen, lasterketan bertan?**

**A.M.** Azken metroetan, Kantoitik helmugara hor nonbait. Ordura arte bururari buelta asko eman nizkion. Kolpea



Asier Martinez Herri Biran helmugara bidean, garaipena eskuetan.

ematen asmatu nuen, zortea aldeko izan nuen.

**Erasoa jotzeko une egokia bilatzen ere jakin behar da, ezta?**

**A.M.** Halaxe da, bai.

**Helmugara iritsi eta zer esan zenioten elkarri?**

**A.M.** Garaipenagatik eta egingdako lasterketagatik zorionak eman zizkidan. Esan zidanez, aurreko kilometroetan ni askatzen saiatu zen bazekielako azkarragoa nintzela azken metroetan. Lehendik ere elkar ezagutzen dugu.

**Abantaila al da ibilbidea ezagutzea?**

**A.M.** Etzazuela pentsa hainbestera denik. Ibilbidea motza da eta gutxi gorabehera ibilbidea imagina dezakezu. Laster-

keta lehendik ere ezagutzen zuen, iaz ere bigarren sailkatu zelako.

**Aurkariaren erritmo biziari eusten, pott egiteko zorian ikusi al zenuen zure burua?**

**A.M.** Bai, une txarrak pasatzen dira. "Ea erritmoa jaisten duen zeren eta horrela jarraituz gero, beteko naiz", behin baino gehiagotan esaten nion nire buruari. Uneren batean etsi eta bigarren izateko konformatzen hasi nintzen. Une kritiko horretan ez nuen etsi eta gerora garaipena lortu nuen. Helmuga pasa eta sufrimendu horiek guztiak ahaztu egiten dira.

**Garaipen polita lortu duzu. Zenbat bidez pasa zaizu burutik lasterketaren amaiera?**

**A.M.** Askotan. Une onean iristeko prestaketa landu nuen. Hilabete eman dut indartsu entrenatzen. Buruan nuen garaipena, iaz seigarren sailkatu eta gero.

**Proba hobetu al dezakezu?**

**A.M.** Egin dudan hirugarren Herri Bira da. Lehenengo urtean 25. sailkatu nintzen, 35:20eko denbora eginez. Iaz 6. sailkatu nintzen eta aurten lehen postuan (31:17). Lehen parte hartzetik nire marka 4 minutuan hobetu dut.

Sasoiko dago Martinez, Barxurde krosetan bigarren sailkatu baitzen. Laster Behobia prestatzen hasiko da.

## Urnietarrak han eta hemen

"Mendian talde polita osatu dugu", dio **Asier Martinezek**. Denboraldi erdia mendiko lasterketan ematen du, eta beste erdia errepidean. Korrikalari prestuak daude Urnietan, maila handikoak. Aurreko asteburuko emaitzak ikustea besterik ez dago.

Denen gainetik nabarmentzen ari den **Jokin Lizeagak**

udaberrian izandako lesioa eta kirofanoa erabat ahaztu ditu. *Ultra pirineo cavalls del vent* maratoian txapelkunorde izan zen.

**Jon Urdangarinek**, bestalde, Endoiako mendi lasterketan garaipena eskuratu zuen.

Zorionak hirurei. Hirurak ere maila bikaineko korrikalari sortaren ordezkari dira.

## Gazteleku pilota eskola

**Deialdia:**

- **Eskuz** jolastu nahi baduzu, neska mutilentzat: 5-8 urte bitartean: azaldu, urriaren 4ean hasita, larunbatetan 11:45etatik 13:00etara Arratera. 9-12 urte bitartean, eman izena zure ikastetxean edota azaldu urriaren 6tik aurrera 17:00etan astelehen eta ostiraletan. 13 urtetik aurrera, eman izena zure ikastetxean edota azaldu urriaren 7tik aurrera 17:00etan astearte eta ostegunetan.
- **Palaz** jolastu nahi baduzu, mutilentzat: 13 urtetik aurrera, eman izena zure ikastetxean edota azaldu urriaren 7tik aurrera 17:00etan, astearte eta ostegunetan.

Neskentzat:

11-16 urte bitartean: eman izena zure ikastetxean edota azaldu urriaren 7tik aurrera 17:00etan, astearte eta ostegunetan.

16 urtetik gora: azaldu urriaren 4an hasita larunbatetan 10:00etatik 11:00etara Arrate frontoira.

• **Zestaz** jolastu nahi baduzu, neska mutilentza:

9-12 urte bitartean eman izena zure ikastetxean edota azaldu urriaren 6tik aurrera 17:00etan, astelehen eta ostiraletan.

13 urtetik aurrera eman izena zure ikastetxean edota azaldu urriaren 7tik aurrera 17:00etan, astearte eta ostegunetan.

**Informazioa:**

943 590 174 (16:00-19:00).

## Futbol liga hasi da

**Erregional Preferentea**

**Liga 1. Multzoa**

Astigarraga 2-0 Euskalduna  
Trintxerpe 1-2 Urnieta  
Hernani 0-0 Lengokoak

**Asteburuko partidak:**

Euskalduna-Dunboa  
Larunbata, 27. 17:15.  
Urnietako-Hernani  
Ostirala, 26. 19:45.

## Gimnasia akrobatikoa

Hamalau urtetik gorakoentzat gimnasia akrobatikoa eskaintzen hasiko da Urnietako Izurde Club taldea. "Jarduera horretarako taldetxoa sortzeko asmoarekin, Izurde Talde-

ak adin honetako gazteak hura probatzera animatzen ditu, pixkanaka indar eta garrantzia handiagoa har dezan". Harremanetarako: clubizurde@gmail.com

## Leizaran eskubaloi taldea, txapelketarekin pozarren



Aurreko larunbatean Leizaran Eskubaloi Kirol Klubak aurrendenboraldiko IV. txapelketa ospatu zuen. Bertan 5 klub ezberdinetako 13 talde lehiatu ziren. Denera, 200 jokalarik. Klubak esker ona adierazi du: "Leizaran eskubaloiak eskerrak eman nahi dizkizue Allurraldera eta Arratera bertaratu zineten guztioi, bai eta txapelketa antolatzen lagundu duzuen guz-

tioi: Udala, babesleak, Gurtze gorria, epaileen batzordea eta Leizarango kideak". Egun ondo igaro zela ikusirik, ildo beretik jarraituko dutela iragarri dute: "Txapelketa polita ikusita, eta gainera kiroldegiko harmailetara jende dezenteko gerturatu zenez, txapelketa datorren urteetan ere aurrera eramateko eta hobetzen jarraitzeko animo asko eman dizkigu".

